

Milioiak EAJk banatu zituen

Euskal Herrian atzo tokatu zen saririk handiena Gueñesko batzokiak eman zuen

Hego Euskal Herriak ez du zorte handirik izan Eguberrietako loteria zozketan. Laugarren eta bostgarren zenbakien zati txiki bat irten da Bizkaian eta Gasteizen. Saririk handiena Olakoagako (Gueñes) batzokiak banatu du —510 milioi pezeta—. 'Gordoa', 47.996 zenbakia, Madrilera joan da.


DONOSTIA

Hegoaldean aurten izan den saririk handiena Gueñesko Olakoaga auzoko batzokiak banatu du. EAJren egoitzan 4. saria izan den 56.685 zenbakiaren 510 milioi banatu ditu, Bizkaiko hiriburuko Villanueva 10 administrazioan hartuak. Lokal horrek laugarren sariaren beste 90 milioi banatu ditu bertan, leihatilan.

Bostgarren sariaren zati bat ere tokatu da EAEn, Bilboko Ormaetxea administrazioak 32.029 zenbakiaren 50 serie banatu bait ditu. Sari honen 72 milioi Gasteiza joan dira. Zenbaki beraren bi serie Azpeitira joan ziren baina 1 zenbakidun administrazioko arduradunak bueltatu egin zituen «azpeitiarrek erosi nahi ez zituztelako».

Euskaldunek ez dute, beraz, zor-

SARI NAGUSIEN BANAKETA



terik izan 1.991. urteko zozketa berezi honetan. Kontutan izan behar da EAEn soil soilik, herritarrek 12.000 milioi pezeta jokatu dutela aurtengo loterian, joan zen urtean baino % 20 gehiago.

Iñaki Jauregi batzokiko arduradunak atzo adierazi zuenez, 300 bat-

auzotarrek erosi dute saritutako zenbakia. Inguruetakotako taberna eta batzokietan ere banatu ziren 56.689 zenbakiaren serieak.

Saria tokatu zaien gehienek 500.000 eta milioi bat pezeta bitartean patrikaratuko dituzte, baina Jauregik zehaztu zuenez, badira hama-

lau milioi pezeta tokatu zaizkienak, baita hiru edo sei milioiz jabetu direnak ere.

Aurtengo 'gordoa' —47.996 zenbakia— Madril saldu da osorik. Serrano kaleko Galerías Preciados-eko 300 langileei 12.000 milioi pezeta tokatu zaizkie. Madrileko 60

✓ Azpeitiko administrazioak bostgarren sariaren bi serie saldu ez eta bueltatu egin zituen. Herritarrek 14 milioi irabazteko aukera galdu zuten

administrazioak saldu zituen 47.996 zenbaki 'gordoaren' berrogeitazazpi serieak.

Loteriaren bigarren sari nagusia 23.223 zenbakiari dagokio eta Alzira—Valencia— eta Santa Cruz de Tenerifeko Santa Ursulan saldu da. Hirugarren saria 52.318 zenbakia izan da eta Miguelurra—Ciudad Real—herrian saldu dute.

Laugarren saria bi zenbaki-entzat izan da, 56.689 eta 13.588rentzat, hain zuzen. Bostgarren sariak lau izan dira: 32.029, 28.583, 59.368 eta 30.714 zenbakiak.

Valenciako Alzira herrian tokatu diren 6.500 milioi pezetatik 5.000 milioi Sagrada Familia auzoko fallak banatu ditu. 23.223 zenbakiaren hirurogei serie t'erdi saldu ziren Alzira-rako 1 zenbakiko administrazioan. Hirurogei serietatik berrogeitamar Sagrada Familia auzoko fallak erosi zituen.



**JOXE MIGEL
BARANDIARAN**

**Joxe Migel Barandiaren Aierbe
Jaun Txit Goren eta Agurgarriari,
Gipuzkoako Urrezko Domina
eta Seme Kuttunari**

**AGUR T'ERDI
-GOIAN BEGO-**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA